

#

HKEE-AREN PRENTSA OHARRA, SUSPERTZE, TRANSFORMAZIO ETA ERRESILIENTZIA PLANARI (STEP) DAGOKIONEZ EUSKADIKO TOKIKO SEKTORE PUBLIKOKO TOKI ERAKUNDEETAN ONARTUTAKO IRUZURRAREN AURKAKO NEURRIEN PLANEI (INP) BURUZKO TXOSTENARENA.

Ekainaren 6an, Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren Osoko Bilkurak aho batez onartu zuen Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Planari (STEP) dagokionez Euskadiko tokiko sektore publikoko toki erakundeetan onartutako iruzurraren aurkako neurrien planei (INP) buruzko txostena.

STEP tresnaren bidez gaitzen eta bideratzen da Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren (SEM) Europako funtsetarako sarbidea, Next Generation EU funtsen esparruan.

Lan hori Estatuaren kanpo kontroleko gainerako organoekin eta Kontuen Epaitegiarekin koordinatuta egin da.

Aztertu diren iruzurraren aurkako neurrien planak, txosten honetan, 2021eko urriaren 1etik 2022ko martxoaren 31ra bitartean erakunde betearazle bihurtu ziren 5 udali dagozkie: Bilbo, Donostia, Gasteiz, Ermua eta Zumarraga.

Txostenaren ondorio gisa, Epaitegiak adierazi du 5 udalek eskatzen den autoebaluazioa egin dutela STEParen kudeaketa printzipio espezifikoak betetzeari dagokionez gutxieneko estandarra zehazteko; 2 udalek INPak baliabide propioekin egin eta onartu dituztela, eta gainerakoek zerbitzuen kanpo kontrataziora jo dutela; 5 udaletan egiaztatu da INPa epearen barruan onartu dutela, ezarritako eskakizunak betetzen dituztela, eta INPen edukia iruzurraren aurkako zikloaren fase bakoitzera egokitzen dela (prebentzioa, detekzioa, zuzenketa eta jazarpena), eta haien ezarpen maila handia dela jo da. Azkenik, aztertutako 5 udalek ez dute iruzurraren, ustelkeriaren, interes gatazkaren edo finantzaketa bikoitzaren zantzurik identifikatu, txostena egin den egunera arte.

#